

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI) erakunde autonomoaren zuzendari nagusia izendatzea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urriaren 16an egindako aparteko eta premiazko bilkuran, Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI) erakunde autonomoko zuzendari nagusiaren izendapena onetsi zuen.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI) zuzendariak erretiroa hartu baitu, beharrezko jo da zuzendari berri bat izendatzea premiaz, hilabete hauetan metatutako lan administratiboari irteera eman ahal izateko beharrezko diren zereginiei ekiteko.

Erakunde autonomoaren aurrekontuan bada aurrekontu-zuzkidura lanpostu horretarako.

2010eko ekainaren 25ean Udalbatzak behin betiko onespena eman zion Vitoria-Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoari. Dokumentu horretan, besteak beste, gobernuaren eta administrazioaren oinarriko mailak arautzen dira, eta horien funtzionamendua, antolaketa eta erregimen juridikoa xedatzen dira.

Araudi horretan berriaz arautzen dira zuzendaritza organo motak, horien zereginak zein izendapen erregimena, eta horrekin lotuta, 44. artikulua honela dio:

“Tokiko Gobernu Batzarrak izendatu nahiz kargutik kenduko ditu koordinatzaile nagusiak eta zuzendari nagusiak nahiz antzeko organoak”

Eta 2. paragrafoan honela jarraitzen du: “Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130.3. artikuluan xedatutakoaren arabera izendatu beharko dira”

Aipatutako 130.2 eta 130.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, zuzendaritza organoak doktore, lizentziadun, arkitekto, ingeniari edo baliokidea den titulua eskatzen zaien karrerako funtzionarioen artean izendatzeko beharrez gain, erregimen orokor hori bertan behera uzteko aukera ere jasotzen da, hain zuzen, dagokion lanpostuaren berriazko ezaugarriak aintzat harturik, betiere, gaitasun profesional eta ardura lanpostuetako esperientzia, kudeaketa publiko zein pribatuan, irizpideekin bat etorritik. Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoak aukera hori jaso du, beraz, beharrezko denean, zuzendaritza organoen lanpostuak funtzionario ez direnek edo lanpostu horiek betetzeko eskatzen den titulazioa ez dutenek bete ahalko dituzte. (Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 44. artikulua)

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ildotik, Imanol Zabaleta Altuna jauna Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI) erakunde autonomoko zuzendari nagusi izendatzea proposatzen da, aurreko titularrak, Luis Andrés Orive jaunak borondatezko erretiroa hartu baitu.

Horrenbestez, Vitoria-Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 44. artikulua — Tokiko Gobernu Batzarraren esku uzten baitu zuzendari nagusiak izendatu eta lanpostutik kentzeko eskumena — eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4.b) artikulua — Tokiko Gobernu Eraberritzeko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua — xedatutakoarekin bat etorritik, alkateari dagokio udal-administrazioaren zuzendaritza, eta, ondorioz, proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Imanol Zabaleta Altuna jauna Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI) erakunde autonomoko zuzendari nagusi izendatzea, 2020ko azaroaren 2tik aurrerako ondorioekin.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 4an

Alkatea

GORKA URTARAN AGUIRRE